

Kaixo familia,

Zer moduz zaudete?

Jakingo duzue, egoera ahu luzatu egin da eta dirudienez, Aste Santua pasa arte gutxienez, ez gara itzuliko.

Haur Eskolatik, oso gutxi egin dezakegu baina gure ustez, bizi ari garen egoeran, gauza ez da bakarrik "ekintzak" antolatzea, esku-lanak, dantzak, kantikak... baizik eta **etxeko bizitza bera, posible den neurrian, "joku batean" bihurtzea. Egunaren edozein momento zure umearekin ekintza bat sortzeko aukera bihur daiteke.**

Dena ez da haur guztientzat balioko baina zuk (zuek) inork baino hobeto, ezagutzen duzu(e) zure seme-alaba eta bakarrik zuk (zuek), nondik norakoa aurrera eraman ahalko duzue ondorengo ideiak, jakingo duzue.

DENA LUZATUKO DA BAINA ASTIRIK FALTAKO EZ ZAIZUENEZ... HARTU LASAI ETA ESKEINI, BETI ESKAS DUZUEN ASTI HORI!

ETA KONFIANTZA IZAN ZURE HAURRENGAN!!! HAINBAT GAUZA EGITEKO GAI DELA SINESTEA, OSO GARRANTZITSUA DA!! AUKERA EMAN!

Etxeko egunerokotasunean saiatu zure umea partaidea izaten:egun hauetan, zure haurrak, zurekin (ama-aita) egon nahiko du eta zuk (zuek) egiten duzuna, berak ere egin nahiko du.

- mahaia jartzerakoan, bidali hamaika aldiz mahia jarri arte, goilara bat eraman, orain beste bat, orain serbilletak, gero, sardexkak, ogia banatu, olibak edo esparragoak entsaladan bota... eta 3 minutu iraundu behar den gauza bat, 10 minutu erabili beharko duzue. Egun batzuk pasa ondoren, ikasten duen ahala, utzi ditzakezue gauza guztiak eskura, mahai gainean, zure haurrak poliki poliki jar ditzan.

- mahia kendu: gauza bera, poliki poliki gauzak kendu, ondarrak zakarrontzira bota...

- sukaldatu elkarrekin errezeta errazak: fruta-brotxetak, fruta-zukuak, bizkotxo, madalenak, letxuga garbitu eta zatitu eskuz, gatza-orea egin, ogia...

- landareak ureztatu eta zaindu.

- animaliak zaindu (ahal den neurrian): garbitu, orraztu eta bazkaria eman

- ohea egiten lagundu: gaizki edo ongi berdina da, gauza da parte hartzea eta zuekin batera egitea.

- hautsa kendu: berari trapu bat eman eta zuk beste tarpu berdina (ezberdina bada... zurea bezalako bat nahiko du seguro) eta banatu lana, "zuk garbitu altzari hau eta nik hau, ados?" zuk zaila dena eta berak errazagoa dena, noski!

- arropa garbigailura eraman; haurrak har dezan arropa multzo bat eta zuk beste bat. Garbigailuan sartu bien artean.

- arropa astindu: pinza-banatzaila

- arropa dolestu: eman kamiseta dolesteko, galtzerdiak elakartzeko..

- arropa armairuetara eraman: zurekin batera

- dutxan: normalean erabiltzen duzuen baino denbora pixka bat luzeago utzi jolasteko. dutxatu elkarrekin, edo anai-arrebekin... gozatu momento honetaz

- aprobeztatu arropa janzteko eta arantzeko

Garbiketa guztiak egiteko egun aproposak dira hauek, ezta??? orduan..

- egiten baduzue paper-garbiketa (fakturak, apunte zaharrak, eta abar...) ba... APROBETXATU zuen umeekin,
- paper horiek margotzeko.
- papre-pilotak egiteko eta poltsa batean "enzestatzeko".
- paper-piloten batailak egiteko.
- buruarekin paper-pilotak jotzeko/ oinarekin/ eskuarekin/ ipurdiarekin...
- paperoflexia egiteko (hegazkinak. Itsasontziak,txoriak...)
- sartzeko ohial-poltsa batean eta kilikien bergak egiteko

Egiten baduzue arropa garbiketa (eskuoihalak, izarak edo arropa zaharrak kendu), egin moozorroak (piratak, tunikak, turbanteak, soineko luzeak, kapak...)

- jantzi arropa horiek eta margotu arropa jantzita duzuen bitartean
- arropa apurtu-moztu-gorapilatu eta kabainak eta kobazuloak egiteko erabili
- egin arropa-mendixka bat eta bota gorantz eta izkutatu.
- Aprobetxu egun hauek **ZUEN IPUINAK ASMATZEKO!!!**
- Bere gustuko diren pertsonaiekin edo animaliekin ipuinak asmatu eta egunero kontatu!
- Asmatu kanta bat (interneten inork aurkituko ez duen kanta)
- Asmatu dantza bat zuen kantarekin eta zuen ipuinarekin
- Antzerkiak egin: otsoa izan eta bere atzetik joan eta mila kilimak egin!! Ez da nekatuko!
- Margotu eta egin pertsonaiak kartoizko kutxekin (komuneko peper rolloekin)

Eta zuk, zuek, zure tarte bat behar izaten duzunean... HARTU LASA ETA AZALDU TARTE HORI BEHAR DUZULAI!
Agian ez du ulertuko vaina agian bai.

Eta momento horretan, eskeini ipuinak, edo etxeko material arrunta jolasteko eta manipulatzeko (altxorren saskia) edo telebista (ratotxo bat ikustea ez da txarra.

Azken aholku bat ... Interneteko bideoak erabiltzen badituzue, abesti batzuk bakarrik entzuteko aukeratzea gomendatzen dizuegu, hau da, (irudirik gabe) eta beste batzuk, irudiekin nahi baduzue. Abesti batek irudia duela jakiten dutenean, irudiz entzutea baino ez dute nahiko, hau da, bideoa, eta horrek asko mugatzen ditu haurren sormena eta irudimen naturala, telebistaren aurrean bai edo bai egotera mugatzen dituen aldi berean.

JAKIN DEZAZUEN, BAI ZUEN SEME-ALABAK ETA BAI ZUEK FAMILIAK... FALTAN BOTATZEN ZAITUZTEGULA!!

ANIMO ETA LAISTER ARTE!!